

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea kultura eta kirola sustatzeko ekintzak egiteagatik Berantevillako udalerriko elkarte, kirol klub eta administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzari

Kultura eta kirola sustatzeko ekintzak egiteagatik Berantevilla udalerriko elkarteei, kirol klubei eta administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza onesteko hasierako erabakia, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2025eko uztailaren 28an onetsia, jendaurrean jartzeko epea igaro da, eta, horren barruan, ez zaio inolako erreklamaziorik aurkeztu ordenantzari, eta, beraz, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, behin betiko erabakia argitaratzen da.

Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, bat etorritik uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan agintzen duenarekin.

Nolanahi ere, bidezko jotzen den beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Berantevilla, 2025eko urriaren 6a

Alkatea

ISABEL ARBAIZAGOITIA PERAL

KULTURA ETA KIROLA SUSTATZEKO EKINTZAK EGITEAGATIK BERANTEVILLAKO UDALERRIKO ELKARTE, KIROL KLUB ETA ADMINISTRAZIO BATZARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea

Ordenantza zehatz honen xede da ezartzea Berantevillako udalerrian egiten diren kultura eta kirol jardueren antolaketak berekin dakartzan gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak.

2. artikulua. Erakunde onuradunak

2.1. Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke:

A) Irabazteko xederik gabeko elkarteak, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen arabera legez eratuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuak, helbidea eta sozietatearen egoitza Berantevillako udalerrian badute.

B) Legez eratutako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan erregistratutako kirol klubak, baldin eta haien helbidea eta sozietatearen egoitza Berantevillako udalerrian badago.

C) Berantevillako udalerria osatzen duten kontzejuak.

2.2. Erakunde onuradun guztien jarduera eremuak Berantevillako udalerria izan beharko du.

2.3. Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartzeko, erakunde eskatzaileek egunean izan beharko dituzte zerga eginbeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak

eta Berantevillako Udalarekikoak. Baldintza hori eskaera aurkezten den unean bete beharko da, eta betetzen jarraitu beharko du izapidetze prozedura osoan (dirulaguntza ematea, betebeharra aitortzea eta ordaintzea).

2.4. Ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan beren antolaketa eta jardueren programazioan emakumeen edo gizonen presentzia eta/edo berdintasunez parte hartzea eragozten duten erakundeak.

2.5. Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako inguruabarretakoren batean daudenak.

3. artikulua. Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

1. Diruz lagundu ahal izango dira 2. artikuluan aipatutako onuradunek Berantevillako udalerrian kulturaren eta kirolaren esparruan egin edo sustatu dituzten dinamizazio proiektuen eta jardueren ondoriozko gastuak, arlo hauekin lotuta daudenak:

- A. Udalerrian gizarte ongizatea sustatzea.
- B. Euskararen erabilera sustatzea.
- C. Herritarren baterako parte hartzea sustatzea.
- D. Kirola sustatzea.
- E. Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzea.
- F. Udalerriko herri tradizioen berreskurapena sustatzea.
- G. Ingurumena babestea sustatzea.
- H. Kultura sustatzea.

2. Kontzeptu hauek lagundu ahal izango dira diruz, adierazitako ehunekoaren arabera:

	DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN EHUNEKOA
A	Instalazioak alokatzea	% 80
B	Jardueraren berariazko aseguruia	% 80
C	Txangoak egiteko garraioa	% 90
D	Kirol- eta/edo kultura-ekitaldietarako eta museoetarako sarrerak	% 75
E	Musika- eta antzerki-emanaldiak eta erakustaldiak	% 50
F	Begiraleak, gida espezializatuak eta arbitroak	% 60
G	Kirol lehiaketetan eta federazio kuotetan izena ematea	% 50
H	Material inbentariagarria erostea eta konpontzea	% 40
I	Botikin medikorako materiala erostea	% 40
J	Garaikurrak erostea	% 30
K	Kirol material inbentariaezina	% 30

Honako baldintza hauek aplikatuko dira:

A) Instalazioen alokairua: jarduera egiteko berariaz bideratuta eta egokituta egon beharko dute instalazioek. Ez da diruz lagunduko xede espezifikorik ez duten lokalen alokairua.

B) Jardueraren berariazko aseguruia: polizaren eta ordaindutako ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko da.

C) Garraioa: ez da diruz lagunduko bazkideen edo parte hartzaileen garraio pribatuaren erabilera, ezta erregaia ere.

3. Ez dute dirulaguntzarik jasoko hauek:

- Herriko jaietako egitarauaren barruan edo udalak eta entitate eskatzaileak sinatutako hitzarmenen ondorioz diruz lagundutako jarduerak.

- Otordu gastuak.

- Elkartearen barne funtzionamenduaren eta kudeaketaren gastu materialak, eta elkartearen jardueren zabalkundea egiteko publizitatearenak.

- Entrenamendu lekuetara edo jarduera egin ohi den lekuetara joan-etorriak egiteko gastuak.

4. Diruz lagundu ahal izango dira eskaeraren aurreko urteko azaroaren 1etik eskaeraren urteko urriaren 31ra bitartean egindako gastuak.

4. Zenbatekoa eta mugak

1. Oinarri arautzaile hauen bidez araututako deialdien babesean ematen diren laguntzak aurrekontu ekitaldi bakoitzean honako aplikazio hauetan dagoen aurrekontu erabilgarritasunera egokituko dira:

A.) 341.481.000 aurrekontu aplikazioan, 2.1 artikuluko a) eta b) apartatuetan zehaztutako elkarte eta erakundeek aurkeztutako eskaeretarako.

B.) 341.434.000 aurrekontu aplikazioan, Berantevillako udalerriko kontzejuek aurkeztutako eskaeretarako.

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa inolaz ere ezin da izan Berantevillako Udalak aurrekontu orokorrean xede horietarako partidetan ezarritako kopurua baino gehiago.

2. Eskatzaile guztiei eman beharreko zenbatekoa, guztira, indarrean dagoen udal aurrekontuaren kasuan kasuko aurrekontu aplikazioan esleitutako gehieneko kopurua baino handiagoa bada, haietako bakoitzari zenbateko osoaren gainean dagokion ehunekoaren arabera kalkulatu da bakoitzari emango zaion behin betiko kopurua.

3. Eskatzaile berak jarduera baterako baino gehiagorako eskaera aurkez dezake, baina honako muga hauek izango dira:

A) Eskaera bat aurkeztu beharko da gastua justifikatzeko aurkezten den faktura bakoitzeko, eta diruz lagundu daitekeen gastuaren modalitate bakar bati erantzun beharko dio (A motatik K motara).

B) Eskatzaile batek eskabide bat baino gehiago aurkezten badu, bigarren eskaera eta hurrengoak bakarrik onartuko dira izapidetzeko, baldin eta onuradun bakoitzari dirulaguntza bat emateko proposamena egin ondoren aurrekontu kreditua badago.

Onuradun bakoitzak aurkeztu duen lehen eskaera ebazteko 4. artikuluko bigarren apartatuan xedatutakoa aplikatu behar bada, ez da bigarren eskaeren instrukziorik egingo, eta hala jasoko da emakida ebazpenean.

C) Erakunde batek bi eskaera edo gehiago aurkezten badu, lehenik eta behin, eskatzaileari kostu handiena dakarkiona izapidetuko da.

D) Bigarren eskaeraren eta ondorengo zenbatekoa aurrekontu aplikazioan erabilgarri dagoen kredituaren bidez mugatuko da, eta ez du inola ere murriztuko diruz lagundutako lehen jardueragatik gainerako eskatzaileei eman beharreko zenbatekoa.

E) Bi onuradunek edo gehiagok diruz lagun daitekeen gastu bat baino gehiagorako eskaera aurkeztu badute, geratzen den kredituarekin dirulaguntza emateko, artikuluko honen bigarren apartatuan ezarritako irizpide bera aplikatuko da.

F) Eskaerarik ez dagoelako edo betekizunak betetzen ez direlako balizko onuradunen bati esleitutako zenbatekoa agortzen ez bada, aurrekontu aplikazio horretan sartuta ez dauden erakunde onuradunei esleitutako zenbatekoa handitu ahal izango da, instrukzio organoak ildo horretan egiten duen proposamenarekin bat etorriz.

5. Eskakerak

5.1. Aurkezteko epea.

Eskakerak aurrekontu ekitaldi bakoitzeko irailaren 1etik azaroaren 5era bitartean aurkeztu ahal izango dira.

5.2. Dokumentazioa

A) Berantevillako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira eskakerak, l. eranskinean adierazitako ereduaren arabera.

B) l. eranskinaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a. Estatutuen fotokopia eta legez eratu izana eta, hala badagokio, dagokion erregistroan inskribatu izana egiaztatzen duen dokumentazioa, lehen aldiz eskatzen dutenentzat edo aurreko ekitaldian estatutuak aldatu dituztenentzat.

b. Gastuaren justifikazioa: ezinbestekoa izango da dokumentazio hau aurkeztea:

i. Honako datu hauek jasotzen dituen faktura:

1. Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ, eta helbidea

2. Hartzailea: Sozietatearen izen, IFZ eta helbidea Nolanahi ere, onuradunak izan beharko du.

3. Gastuaren xede zehatza.

4. Faktura zenbakia eta data

5. Zerga aplikagarriak (BEZ/PFEZ).

ii. Onuradunaren kontu zenbakitik egindako ordainketaren banku egiaztagiria.

Ez da onartuko administrazio batzarrek eskudirutan egindako ordainketarik.

Elkarrekin eta klubek eskudirutan egindako 500,00 eurotik beherako ordainketak baino ez dira onartuko diruz lagundu daitekeen gastu bakoitzeko.

c. Lehenengo urtean, eskatutako dirulaguntza ordaintzeko eskatzen den banku kontuaren titulartasun ziurtagiria aurkeztu beharko da. Nolanahi ere, erakunde onuradunak kontuaren titularrak izan beharko du.

C) Eskabideak ez baditu betetzen deialdiaren arauan ezarritako betebeharrak, organo eskudunak erakunde interesatuari eskatuko dio zuzendu dezala akatsa, eta gehienez ere 10 egun naturaleko epe luzaezina emango dio horretarako, eta adieraziko dio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela joko dela, aldez aurretik ebazpena hartuta, zeina Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako baldintzak betez hartu beharko baita.

6. Instrukzioa eta ebazpena

6.1. Aurkeztutako eskabideen instrukzioa, epea amaitu ondoren, Berantevillako Udalean lan egiten duen Añanako Kuadrillako Kulturako teknikariak egingo du.

Hark ofizioz egingo ditu beharrezko jotzen dituen jarduera guztiak datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko.

Izapidetzeko onartu ondoren, kasu bakoitzean eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, ebazpen proposamenaren txostena emango da.

6.2. Añanako Kuadrillako Kultura teknikariak ebazpen proposamen hori egingo dio alkateari, ebazpena eman dezan.

6.3. Dirulaguntzak emateko organo eskuduna alkatea da.

7. Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea.

7.1. Prozedura 3 hilabeteko epean ebatziko da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik eman ez bada, ezetsizat joko da dirulaguntza eskaera.

7.2. Udalak erakunde eskatzaileei eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu dien jakinaraziko die. Behin dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazitakoan onuradunak ez badio berariaz uko egiten 10 egun naturaleko epean, onartutzat joko da.

7.3. Emateko edo ukatzeko erabakiak amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka, edo oinarri hauen aurka, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen organoari berari, hilabeteko epean, hura argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; edota administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, zuzenean, administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegian, bi hilabeteko epean, hura argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

7.4. Dirulaguntza emateko erabakian hauek zehaztu behar dira:

- a) Dirulaguntzaren xedea, eta zein eskatzailei ematen zaion (zerrenda)
- b) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko epeak.
- c) Dirulaguntzaren izaera eta hura emateko baldintzak eta betekizunak.
- d) Gainerako eskabideak ezestea.

8. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean ordainduko da.

9. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk xede bererako eman ditzakeenekin. Nolanahi ere, dirulaguntzetatik eta gainerako iturrietatik lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagundutako programaren edo jardueraren guztizko kostua baino handiagoa izan.

10. Dirulaguntza galtzea eta hura itzuli beharra

10.1. Ondoren adierazten diren kasuetan itzuli beharko dituzte jasotako kopuruak erakunde hartzaileek, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta kasu hauetan:

a) Dirulaguntza ezarritako baldintzak faltsutuz eskuratu bada, edo dirulaguntza ezin ematea eragingo luketen baldintzak ezkutatu.

b) Ez bada betetzen, osorik edo partez, dirulaguntzaren xedea, jarduera edo proiektua, edo ez bada jokatzeko dirulaguntza funtsatu zuen jokabidearen arabera.

c) Ez bada betetzen justifikatzeko betebeharra, edo ez bada behar beste justifikatzen, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 30. artikuluan eta oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 14. eta 15. artikuluetan jasota dauden egiaztatze eta finantza kontrolerako jardunei oztupoak eta aitzakiak jartzen bazaizkio; saihestu edo galarazi nahi badira, edo agirien kontabilitate, erregistro edo kontserbazio betebeharrak betetzen ez badira. Hau da, ez badago egiaztatzerik jasotako dirulaguntzari emandako erabilera, helburua lortu den ala ez, diruz lagundutako ekintzen errealitatea edo erregulartasuna, edo helburu bererako estatuko, Europako edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batek emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak jaso diren ala ez.

e) Oinarri hauetan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzen duen erregelamenduan (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa) xedatutako gainerako kasuak.

10.2. Erakunde edo pertsona onuradunak, edo, hala balegokio, erakunde laguntzaileak, erabat edo ia erabat betetzen badute helburua, eta erakunde horiek egiaztatzen badute nabariki jardun direla konpromisoak betetzen, proportzionaltasun printzipioaren aplikazioz zehaztuko da itzuli beharreko zenbatekoa.

10.3. Halaber, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 19. artikulua 3. apartatua jasotzen duen kasuan, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetik atera den soberakina itzuli beharko da, bai eta dagokion berandutze interesa ere.

10.4. Emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura dirulaguntza deialdiaren oinarrietan, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta haren Erregelamenduan araututakoari lotuko zaio.

11. Erakunde onuradunaren betebeharrak

Hauek dira dirulaguntza jasotzen duten erakundeen betebeharrak:

11.1. Udalari aurkeztea diruz lagundutako kontzeptuen jarraipena egiteko eskatzen zaizkion agiriak.

11.2. Berantevillako Udaleko kontuhartzailak orokorrak dokumentazioa egiaztatzeko eta finantzak kontrolatzeko gauzatzen dituen jarduketan mende jartzea, bai eta Herri Kontuen Eus-
kal Epaitegiaren edo eskumen hori duten beste organo batzuen gaineko legedian jasotakoen mende ere.

11.3. Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumen-
tuak, dokumentu elektronikoak barne, horiek egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko.

11.4. Jasotako dirua itzultzea, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

11.5. Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak eta betekizunak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarri izan den jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.

11.6. Organo emaileari jakinaraztea bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu direla diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko.

12. Interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioan sor litekeen edozein zalantza Alkatzaren esku geratuko da, Udaleko Kultura Saileko zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren.

13. Arau haustea eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko administrazioako arau haustea dira Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra IV. tituluaren aipatzen dituen egiteak eta ez-egiteak, eta bertan ezarritako prozeduraren arabera zehaztuko dira.

14. Legeria osagarria

Oinarri hauetan xedatzen ez den guztirako, ondoko hauek hartuko dira kontuan: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorren arautegia onesten duena; eta horiekin bat eta aplikagarri diren gainerako arauak.

KULTURA ETA KIROL PROGRAMETARAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA

Oinarriak arautzen dituen ordenantza (ALHAO, XXXX (data: XXXX)

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ERAKUNDEA

Elkartea edo erakundea		IFZ															
Ordezkaria (presidentea edo legezko ordezkaria soilik)		NAN/AIZ															
Bazkide- edo kide-kopurua																	
Bankuko kontuaren zenbakia																	
Kalea Solairua Herria																	
Posta kodea	Udalerrria	Probintzia															
Helbide elektronikoa	Telefono zk.	Mugikor zk.															
ADIERAZTEN DU																	
Baimena ematen diot Berantevillako Udalari administrazio eskudunei zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren egunean egotearen datuak eskatzeko, soilik prozedura honetako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Ez diet beste administrazio publiko edo pribatu batzuei dirulaguntzarik eskatu kontzeptu beragatik. Dirulaguntza jaso dut kontzeptu bererako, €-ko zenbatekoan, erakundetik: (dirulaguntza eman izanaren agiriaren kopia erantsi da) Dirulaguntza eskatu dut kontzeptu beragatik, baina oraindik ez da eabazpenik eman. Aurkeztutako dokumentazio guztia guztiz bat dator jatorrizkoarekin, interesdunaren esku dago eta Berantevillako Udalaren esku jartzen du hala eskatzen zaionean. Kontzejuen kasuan: Kontratazioak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea eta hura garatzeko araudia zorrotz betez egin dira.																	
ERANSTEN DEN DOKUMENTAZIOA																	
Estatutuen fotokopia eta legez eratuta eta EAEko Elkarten Erregistro Orokorrean edo EAEko Kirol Entitateen Erregistroan inskribatuta daudela frogatzen duten agiriak. Ez dute horiek aurkeztu beharrik lehendik aurkeztuta dauzkatenek, nola eta ez diren aldatu, ez eta toki erakunde txikiak ere. Inprimaki ofiziala. Inprimaki bat bete beharko da programa bakoitzeko. Fakturak eta bankuko ordainagiriak: <table><thead><tr><th>FAKTURA ZENBAKIA ETA DATA</th><th>JAULKITZAILEA</th><th>ZENBATEKOA</th></tr></thead><tbody><tr><td> </td><td> </td><td> </td></tr><tr><td> </td><td> </td><td> </td></tr><tr><td> </td><td> </td><td> </td></tr><tr><td> </td><td> </td><td> </td></tr></tbody></table> Banku kontuaren titulartasun ziurtagiria. Jasotako beste dirulaguntza/laguntza batzuen eabazpena: Hauekin egunean egotearen ziurtagiria: — Zerga Agentzia — Arabako Foru Ogasuna — Gizarte Segurantza			FAKTURA ZENBAKIA ETA DATA	JAULKITZAILEA	ZENBATEKOA												
FAKTURA ZENBAKIA ETA DATA	JAULKITZAILEA	ZENBATEKOA															

Sinadura:

Izena:

Kargua (legezko ordezkaria bakarrik):

NAN/AIZ:

DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Berantevillako Udalak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak datu fitxategi batean sartuko direla, ondoren tratatzeko. Fitxategiaren helburua da udal kudeaketari dagozkion lanak egitea, bere eskumenen esparruan.

Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen denez, Berantevillako Udalean (Kale Nagusia 21, 01211 Berantevilla, Araba).

JUSTIFIKAZIOKO MEMORIA	
ESKAERAREN XEDEA	
PARTE HARTZAILEEN / ERABILTZAILEEN KOPURUA	
HELBURUAK	
Diruz lagun daitekeen arloa (Ordenantzaren 3. artikulua)	
Udalerrian gizarte ongizatea sustatzea Euskararen sustapena Herritarren baterako parte hartzea sustatzea Kirola sustatzea Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzea Udalerriko herri tradizioen berreskurapena sustatzea Ingurumena babestea sustatzea Kultura sustatzea	
Egindako jardueraren/erosketaren deskribapena, eta helburuak lortzeko beharrezkoa edo komenigarria den azaltzea: (NAHITAEZKOA):	
Ekintza euskaraz da / La actividad se desarrolla en euskera BAI ☐ EZ ☐	

JARDUERAREN EGUN KOPURUA / JARDUNALDI KOPURUA			
Adierazi egun edo jardunaldi kopurua (Hala badagokio)			
KULTURA EDO KIROL ELKARTEEN UDAL ERREGISTROKO INSKRIPZIO DATA			
Urtea adierazi			
GASTU KONPUTAGARRIAK (Ordenantzaren 3.2 artikulua)			
Gastuak kontzeptuen arabera xehatuta adierazi	Zenbatekoa	%	Diruz lagundu daitekeena
A) Instalazioak alokatzea		80	
B) Jardueraren berariazko aseguruua		80	
C) Txangoak egiteko garraioa		90	
D) Kirol- eta/edo kultura-ekitaldietarako eta museoetarako sarrerak		75	
E) Musika- eta antzerki-emanaldiak eta erakustaldiak		50	
F) Begiraleak, gida espezializatuak eta arbitroak		60	
G) Kirol lehiaketetan eta federazio kuotetan izena ematea		50	
H) Material inbentariagarria erostea eta konpontzea		40	
I) Botikin medikorako materiala erostea		40	
J) Garaikurrak erostea		30	
K) Kirol material inbentariaezina		30	

JASOTAKO/JASOTZEKO DAUDEN DIRU SARRERAK	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA

Sinadura:

Izena:
Kargua (legezko ordezkaria bakarrik):
NAN/AIZ: